**Arratzua-Ubarrundiako etxe-atariak, balkoiak, leihoak eta lorategiak apaintzeko lehiaketa**

Concurso de decoración de portales, balcones, ventanas y jardines de Arratzua-Ubarrundia

| OINARRIAK | BASES |
|---|---|
| **1. DEIALDIA** | **1. CONVOCATORIA** |
| Arratzua-Ubarrundiako Udalak etxe-atariak, balkoiak, leihoak eta lorategiak apaintzeko lehiaketa antolatu du. | El Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia convoca el concurso de decoración de portales, balcones, ventanas y jardines |
| **2. LEHIAKETAREN XEDEA** | **2. OBJETO DEL CONCURSO** |
| Deialdi honen helburua da balioan jartzea herriko atariak, balkoiak, leihoak eta lorategiak zaindu edota apaintzeko ohitura. Eta herriaren itxurari egiten dizkion onurak ere balioan jarri nahi dira. Hori guztia ingurumena zainduz egitea balioetsiko da.<br>Atari, balkoi, leiho eta lorategi apainduen atzean herritar bakoitzak auzo, kale eta fatxaden estetika hobetzeko egiten duen ekarpena dago eta honek, herritar - herri ingurune erlazioa hobetzen du, aldi berean, bizilagunek eginiko ekarpen artistikoaz denok gozatuz. | El objetivo de esta convocatoria es poner en valor la costumbre de cuidar y/o decorar los portales, balcones, ventanas y jardines del municipio. También se quieren poner en valor los beneficios que aporta al aspecto del municipio. Se valorará que todo ello se realice con respeto al medio ambiente.<br>Detrás de cada portal/balcón/ventana/jardín ornamentado existe una contribución ciudadana a la mejora estética y esto contribuye a su vez la mejora de la relación vecino/a entorno urbano, además de permitirnos disfrutar a todos y todas de las aportaciones artísticas de nuestros vecinos/as. |
| **3. PARTAIDEAK** | **3. PARTICIPANTES** |
| Atari, balkoi, leiho edota lorategia duten Arratzua-Ubarrundiako edozein etxebizitzaren jabe edo errentariek parte hartu ahal izango dute; betiere, apainketa elementuak oinezkoentzat edo azpiegitura berarentzat arriskutsuak ez badira.<br>Atari, balkoi, leiho eta lorategiek gutxienez ekainaren 1etik 30era egon beharko dute apainduta (biak barne). Partehartzaileek, tarte honetan, baimena ematen diote Udalari lehiaketara aurkezten den atari, balkoi, leiho eta lorataegiei argazkiak ateratzeko. | Podrán participar los/las propietarios/as o arrendatarios/as de cualquier vivienda de Arratzua-Ubarrundia con portal, balcón, ventana o jardín, siempre que los elementos decorativos no supongan un riesgo para los peatones o la misma infraestructura.<br>Los portales, balcones, ventanas y jardines deberán estar decorados al menos del 1 al 30 de junio (ambos incluidos). Las personas participantes autorizan al Ayuntamiento a fotografiar los portales, balcones, ventanas y jardines que se presentan al concurso. |
| **4. IZEN EMATEA** | **4. INSCRIPCIÓN** |
| Lehiaketan izena emateko, parte hartzailearen izen- abizenak eta atari, balkoia edota leihoa identifikatzeko helbidea erraztu behar da, modu honetan:<br><br>- Udaletxera bertaratuta edo telefonoz (945 29 9516). Astearte eta ostegunetan: 08:00-15:00etara<br><br>Parte hartzen duen atari/balkoi/leiho/lorategi bakoitzari zenbaki bat emango zaio, eta ikusgai izan beharko du lehiaketa amaitu bitartean, dagokion atari/ balkoi/ leiho/lorategian.<br><br>Izena emateko azken eguna: ekainak 30. | La inscripción al concurso se realizará facilitando el nombre y apellidos de la personas participante y la dirección de identificación del portal, balcón o ventana, de la siguiente manera:<br><br>- Personalmente o por teléfono (945 29 95 16). Martes o jueves: 08:00-15:00<br><br>A cada portal/balcón/ventana/jardín participante se le asignará un número que deberá ser visible hasta la finalización del concurso en el portal/balcón/ventana/jardín correspondiente.<br><br>Fecha límite de inscripción: 30 de junio. |

| | |
|---|---|
| **5. LEHIAKETAREN GARAPENA** | **5. DESARROLLO DEL CONCURSO** |
| Atari/balkoi/leiho/lorategiak apaintzeko elementuak norberak aukeratu eta kokatu beharko ditu. Betiere, pasabideak, espaloiak eta beste bizilagunen etxebizitzetako inguruak errespetatu beharko dira. Eskegita dagoen edozein elementu ondo lotuta egon beharko da, haizeagatik istripu-arriskuak ekiditeko.<br>Edozein modutan, istripurik gertatuz gero, etxebizitza horren jabea izango da kalteen arduraduna. | Los elementos decorativos de los portales/ balcones/ventanas/jardines serán de libre elección y colocación. Se respetarán los pasos, aceras y zonas de viviendas de otros/as vecinos/as. Cualquier elemento colgado deberá estar bien amarrado para evitar riesgos de accidentes por viento.<br><br>En caso de accidente, el/la propietario/a de la vivienda será el/la responsable de los daños. |
| **6. EPAIMAHAIA** | **6. JURADO** |
| Kultura Batzordeak izendatuko du epaimahaia, eta horren osaketa sari-banaketaren egunean jakinaraziko da. Epaimahaiaren iritziz behar besteko mailarik ez balego, lehiaketa irabazlerik gabe utz daiteke.<br><br>Epaimahaiak erabakitakoa apelaezina izango da, eta parte-hartzaileek onartu beharko dute oinarri hauek eta baita erabakia ere. | El jurado será nombrado por la Comisión de Cultura y su composición se hará pública el día de la entrega de los premios. Si a juicio del Jurado no existiera el nivel suficiente, el concurso podrá declararse desierto.<br><br>La decisión del jurado será inapelable y los participantes deberán aceptar las presentes bases y la decisión. |
| **7. BALORAZIO IRIZPIDEAK** | **7. CRITERIOS DE VALORACIÓN** |
| Lehiaketa honetan ondorengo irizpideak balioetsiko dira:<br>-Originaltasuna.<br>-Apainketaren kalitatea.<br>-Erabili diren loreen iraunkortasuna<br>-Armonia eta diseinua.<br>-Erabilitako materiala. Material birziklatua erabiltzea baloratuko da. | En este concurso se valorarán los siguientes criterios:<br>-Originalidad.<br>-Calidad ornamental.<br>-Sostenibilidad de las flores utilizadas<br>-Armonía y diseño.<br>-Material utilizado. Se valorará el uso de material reciclado. |
| **8. SARIAK** | **8. PREMIOS** |
| Sari banaketa uztailaren hasieran izango da.<br><br>Bi kategoria egongo dira, honako sariekin:<br>- Leiho, balkoien eta atarien kategoria: sari bakarra: 200 €<br>- Lorategien kategoria: sari bakarra: 200 €<br>Lehiaketan parte hartu dutenen artean 50 €ko saria zozketatuko da (irabazleak izan ezik) | La entrega de premios tendrá lugar a principios de julio.<br><br>Habrá dos categorías con los siguientes premios:<br>-Categoría ventana, balcones y portales: premio único: 200 €<br>-Categoría Portales: premio único: 200 €<br>Entre los participantes en el concurso se sorteará un premio de 50 € (excepto ganadores) |
| **9. KONPROMEZUA** | **9. COMPROMISO** |
| Lehiaketa honetan parte hartzean, oinarriak eta epaimahaiaren erabakia onartzen da (apelaezina izango da). Era berean, antolatzaileei nahi beste argazki egiteko baimena ematen zaie, hauen eskubide guztiak gordez eta edozein komunikabidetan argitaratzea baimenduz. Betiere, argazkiak gune publiko eta komunetatik aterako dira. | Al participar en este concurso se aceptan las bases y el fallo del jurado, que será inapelable. Asimismo, se autoriza a la organización a realizar cuantas fotografías considere necesarias, reservando todos sus derechos y autorizando su publicación en cualquier medio de comunicación. En todo caso, las fotografías se tomarán desde espacios públicos y comunes. |